



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ELIZALDE

ZENBAGARREN SAIOA: 7

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-08	19:30	21:04

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Jon del Olmo, Iñaki Pikabea eta Agurtzane Lekuona		
Herritarrak:	Euskaraz: 14		Elebitan: 0
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 7
	<30 urte: 0	31-50 urte: 5	51-65 urte: 5

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	<p>Mugikortasunaren inguruan galdetu dute. Oiartzundik kanpora ateratzeko dauden arazoak aipatzen ditu. Ez du ikusten udalak pausorik ematen duenik hori hobetzeko. Udalaren esku dauden garraiobideetan hobekuntzak egin dira, baina Lurraldebusen inguruan ez da emaitzarik lortu. Udalak gehiago saiatu beharko luke hobekuntzak egiten, supermerkatuen gaiarekin egin den bezala.</p> <p>Herritar batek aipatzen du estrategikoki pentsatu beharko dela etorkizunean garraioaren inguruan. Agian, autobusarentzat karril berezi bat bilatu daiteke.</p> <p>Herritar batek Arizmendiko lorategiaren garbitasun falta aipatzen du. Emergentziazko mantenu bat egiten dela erantzuten zaio, baina orain proiektuarekin batera aztertuko da nola kudeatu. Beste batek galdetzen du lorategira Kontzejupetik sarrera edukiko ote duen. Kontenplata ez dagoela esaten zaio, baina etorkizuneko plangintzan egon daiteke. Lorategia irekita egongo da.</p>



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



	Ugaldetxoko zubi gainean (Ihurritakoa) Panpanoak luze daudela eta mozteko eskatzen du herritar batek.
Aurrekontuak 2019	Zorra jaisteko egin den ahalegina zorientzen du herritar batek.
Auzoa	<p>Beluteneko paradaren inguruan kexak daude, irisgarritasun falta du, espaloia ere arriskutsua da. Elorrondoko proiektuarekin batera landuko da.</p> <p>Euskal Herria plazako irteeran dagoen zebrabideko espaloia irristakorra dago.</p> <p>Garbitasun zerbitzuak maizago pasa beharko luke Aialde eta Arraskuelarre kaleetan.</p> <p>Erriberene bukaerako parkean lurra oso gaizki geratzen da euria egiten duenean. Gomazko lurra edo jarri beharko litzakete euria egiten duenean erabili ahal izateko. Itxitura jarri zen Urmendi Irratiaren bazterrera etorri zenean. Ez da parkearen eremu guztian jarri behar goma, zati batzuetan jartzearekin nahikoa da, zainak dauden lekuetan behintzat.</p> <p>Mendiburu 14 proiektuan aparkalekua planteatzen den galdetu da. Ezetz erantzun zaio.</p>

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,00
bilera ongi gidatu da	9,00
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,83
Auzotar kopurua	4,50
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,00
Saioa probetxugarria izan al da?	9,00
Egunaren egokitasuna	8,75
Orduaren egokitasuna	8,83
Lekuaren egokitasuna	9,17
Batezbestekoa	8,23